



Gaur goizean, “No sandblasting” kanpaina aurkeztu dugu. Euskadin aurrez ikusten diren jardueren artean, aipatzekoak dira kale-ekintzak, sinadura-bilketak eta kontzertuak, besteak beste
Arropa Garbia Kanpainak Pepe Jeans, Armani eta Diesel markei exijitzen die bakeroak egiteko sandblasting teknika baztertzeko, milaka biktima eragiten baititu herrialde ekoizleetan

Levi-Strauss, Inditex, H&M eta C&A enpresek, besteak beste, sandblasting teknika ekoizpen-kate osoan baztertuko dutela agertu dute. Arropa Garbia Kanpainaren Euskadiko Sareak zenbait ekimen prestatu ditu gainerako enpresetan ere debeku bilaka dadin

(Vitoria-Gasteiz, 2011ko martxoaren 2a)

Praka bakero gastatuak janzteko moda hildakoak eragiten ari da Turkia, Bangladesh, Txina, India eta beste herrialde batzuetan, bertan ekoizten baita janzten dugun arropa gehiena. “Gastatu” itxura sandblasting teknika arriskutsuaren bidez lortzen da. Teknika hori ehun bakeroan hareazko zorrotada bat aplikatzean datza. Oso metodo merkea da marka handientzat, baina ez dute beste kostu bat kontuan hartzen: munduaren bestaldean bakeroak egiten dituzten pertsonen osasuna, alegia.

Enpresek badakite zein diren sandblasting-aren ondorioak, baina horietako askok nahiago dute entzungor egin. **Pepe Jeans, Armani eta Diesel** enpresek, adibidez, hori egiten dute; izan ere, ez dute Arropa Garbia Kanpainarekin inolako kontakturik eduki nahi izan, eta ez dute sandblasting-a beren ekoizpen-katetik desagerrarazteko inolako urratsik egin.

“No Sandblasting” Kanpainaren xedea da moda-markei presio egitea teknika hori debeka dezaten eta silikosia duten langileekin lotuta dagokien erantzukizuna beren gain hartzea eta haien familiek kalte-ordain aproposak jasotzea. Halaber, kontsumitzaileek, diseinatzaileek eta herrialde ekoizleak gobernuek ere zerbait egitea lortu nahi da. Aurrez ikusten diren jardueren artean, aipatzekoak dira: **kale-ekintzak, sinadura-bilketak eta kontzertuak**. Arropa Garbia Kanpainaren barruko ekimen bat da eta Espainiako SETEMek koordinatzen du. Arropa Garbia Kanpainaren **Euskadiko Sarean** hamar bat GKEk parte hartzen dute, baita kontsumitzaile-elkarteek, sindikatuak eta emakume-elkarte batzuk ere.

Arropa Garbia Kanpainak dagoeneko izan dituen kontaktuei esker, **Levi-Strauss, Inditex, C&A eta H&M** markek, besteak beste, dagoeneko jakinarazi dute beren ekoizpen-katean sandblastinga debekatu dutela. Halere, oraindik ez dute iragarri zein neurri erabiliko duten debekua beteko dela ziurtatzeko.

5.000 GAIXO, 46 HILDAKO

Turkia da sandblastingaren eragin handiena jasaten ari den herrialdeetako bat. Herrialde hartako txosten medikuei esker ikusi ahal izan da bakeroen ekoizpena eta silikosiaren arteko harremana; izan ere, lehen, langileei diagnostiko okerra egiten zitzaien, tuberkulosia zutela esaten baitzieten. Gaur egun sandblastingaren 5.000 langile inguruk silikosia dutela kalkulatu da. Gaixotasun kroniko bat da eta lan egitea eta bizitza normala izatea galarazten die. Horietako 46, gutxienez, hil egin dira.

2009an Turkian sandblastinga debekatu zuten. Harrezkero, bakero gastatuen ekoizpena areagotu egin da beste herrialde batzuetan, hala nola, Bangladesh, Txina, Pakistan, India eta Sirian. **Europar sandblastinga 1966an desagertu zen**, baina Europako herrialdeak dira, oraindik ere, bakero “gastatuen” bezero garrantzitsuenetakoak.

Silikosia harearen silizeak eragiten duen gaixotasun profesional bat da. Meatzaritzan oso ezaguna da, ehungintzan, ordea, ez da oso ezaguna oraindik. Meatzariek 20 urte inguru behar izaten dituzte gaixotasuna jasateko. Sandblastingaren langileak, aldiz, sei hilabeteren buruan gaixotzen dira. Ondorioz, Arropa Garbia Kanpainaren ustez, premiazkoa da OME eta LANE erakundeek ehungintzaren sektorea Munduko Silikosia Desagerrarazteko Nazioarteko Programaren barruan sartzeara.

Informazio gehiago?

Silvia Núñez Castro

Komunikazio Arduraduna

SETEM (Hego Haizea) eta Arropa Garbia Kanpaina

Tfnoa: 945 12 07 46 comunicacion.euskadi@setem.org

www.ropalimpia.org

www.setem.org